

Txotx, irakurleak ezagutzeko

BERRIALagunen bertso bazkaria izanen da bihar Astigarragan • Enbeita eta Soto arituko dira

Iker Tubia

Elkar ezagutzeko toki egokia izaten ba mahai baten buelta. Hala, BERRIA egunkariak sagardotegira joateko gonbita egin die BERRIALagunei. Bihar jarri dute ordua, 14:00etan Oialume Zar sagardotegian (Astigarraga, Gipuzkoa). Egunkariaren komunitatea osatzen duen jendea ezagutzea, haien kezkak zein diren jakitea eta bazkari eder batekin ongi pasatzea izanen dira helburu nagusiak. Onintza Enbeita eta Julio Soto bertsolariek girotuko dute bazkalondoa.

Badira urte batzuk BERRIALagunen kanpaina sortu zela. Egitasmoa 2011n abiatu zuen BERRIA egunkariak, proiektua bera eta euskal hedabideen sarea sendotzen laguntzeko. Iaz, Interneten ingurune oso bat sortu zen egitasmo horren baitan, eta hainbat ekitaldi antolatu ziren laguntzaileengana gerturatu ahal izateko. Aurten ere hainbat ekitaldi antolatuko dira BERRIALagunentzat, eta lehenbizikoa biharkoa da.

«Denboraldiko lehen sagardotegia BERRIALagunekin eta bertso bazkaria eginez egitea interesgarria da, gertutik ezagutzeko BERRIA proiektua babesten duen jende hori, eta egunkariak ematen duenaz gain beste ingurune batzuk sortzeko hainbat konturi buruz hitz egiteko», azaldu du Ainara Lasa egunkariko marketin



Lagun bat txotx egiten, sagardo garaiaren hasiera iragartzeko ekitaldi batean. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

arduradunak. Aurtengo erronketako bat BERRIA komunitatea osatzen duten lagunen intereseko gaiak zein diren, eta irakurtzeko zein ohitura izaten dituzten ezagutzea da. Horretarako, bertso bazkaria ez ezik, bestelako tresnak eta jarduerak ere antolatuko ditu BERRIAK. «Geroz eta gehiago hurbildu nahi dugu haiengana, eta haien iritziak ezagutu, betiere BERRIA hobetzeko eta garatzeko», esan du Lasak. Gainera, bazkaria

esker ona azaltzeko modu bat ere izanen da, egunkariaren proiektua babesteagatik.

Bertso saio berezia

Bazkari berezia izanen da, BERRIAREN komunitatea osatzen duten guztiak gonbidaturik daudelako. Baina berezia izanen da ere bertsoan ariko direnek lotura estua dutelako proiektuarekin. Julio Soto luzez aritu da Iritzia sailean parte hartzen, eta, horregatik,

«ilusioz» eta «pozez» joanen da Astigarragara. Onintza Enbeitak egun ere idazten du *Iritzia* sailean, baina euskarazko egunkariarekin duen lotura aspaldikoa da. Izan ere, Leioako fakultatea utzi, eta *Euskaldunon Egunkaria*-n hasi zen kazetari lanetan. Ondoren, BERRIA egunkarian ere aritzen lanean.

«Saio guzietarako deiak pozez hartzen dira, jendeak kontuan hartzen zaituela jakitea pozgarria

da, baina hau berezia egiten da, BERRIALagunekin egiten da. BERRIA bizirik jarraitzea proiektuaren parte izatea, guztiak parte hartzea, eta momentu an mikrofonoa eskuan hartzea lita izango da, eta giro berezia tuko da», onartu du Enbeita. Kontent da, halaber, proiektu ohiekin biltzeko aukerak baitu.

Sotok ere gogotsu hartzen du bertso bazkarian kantatzeko aukerata. «Ekimen oso interesgarria da aberasgarria iruditzen zait. BERRIALagunek elkar ezagutzeko proiektu komuneko parte hartzen dugulako», azaldu du Horrek, baina, ardura oso sentiarazi dio. «Etxeko proiektu aurrean izango duguna ez da kaloste goxoa eman nahi dugun».

BERRIALagunekin egiten diren kera izanen da bertso bazkaria baina hitzordu informazioa da. Txartela erosteko aukerakoa bada ere proiektuaren parte izatea, haien lagun eta lagunkari ere joan litezke Oialume Zar sagardotegira. Oraindik proiektu aukerarik bazkarian parte hartzeko. Dagoeneko ezin da erabakirik erosi telefonoz edo Interneten. [Http://www.berria.eus/berria-laguna/denda](http://www.berria.eus/berria-laguna/denda) webgunean sartu daitezke 29 euroan.

Arestian aipatu bezala, bertso egiteko BERRIALagunekin harra dago; ezinbesteko proiektuarekin erregistratzea. Hala ere, proiektuarekin tratzeak bestelako aukerak ere baditu, sarean BERRIALagunentzako eduki guzietarako proiektu lortzen baita modu horretan.